

auzo auzo • auzo auzo • auzo auzo

**herrera**

# Soul Street taldearen Azken Ametsa

.....  
Auzategiko insonorizatutako gelan grabatu dute maketa

Asteartero, Javi, Antonio, Txemari eta Igor, Soul Street taldeko partaideak, kitarrak hartu eta gai berriak asmatzen aritu dira denbora luzean. Lan honen ondorioa kaleratu nahian lehen maketa grabatzen ibili dira buru belarri azken hilabeteotan.

**Zein izan da zuen grabaketaren emaitza?**

«El último sueño» izeneko maketan, izen hau bera daraman kantua eta beste hosi bost tema bildu ditugu.

**Zer suposatu du grabaketa honek taldearentzat?**

Lan izugarria, egia esan hasieratik nahi izan genuen talde lana sendotu baina maketaren grabazioak seriotasun handiagoa eskatu digu guztioi. Gure lehen maketa bada ere, bertan interpretatutako abestien musika maila altua dela uste dugu eta horrek lan galanta eskatu digu.

**Aspaldian zabilzate musika munduan, zein bilakaera izan du zuen taldeak?**

Begira, lehendabizi Blues musika egiten hasi ginen. Baina denborak garapena ekarri du talde-  
ra, batez ere modulazio



Hemendik gutxira Soul Street taldearen maketa, musika taberna espezializatuetan eta gure etxeko irrati aparailuetan entzuteko gai izango gara, dena den salgai izango denez prezioa eta eroslekuak ere finkatuko dituzte laister.

hobekuntzak eta rock erritmoetarako gerturape-  
nak izan dira aldaketa handienak.

**Eta zuzeneko eman-  
kizunetan zer moduz  
zabilzate?**

Hasiera batean zuzeneko kontzertuek beldur izu-  
garria ematen baziguten ere egun esperientzia horietatik ondorio baikor-  
rak ateratzeko gauza izan gara, honela esan daiteke musika nazionalan oinarritutako abesti bilduma haietatik nazioarteko

musikoetara ireki dugula gure erritmoa.

**Aipatutako aldaketa horiek ezagutaraztea izan al da maketaren helburua?**

Bai, taldearen aurkezpen ofizial modura erabiliko dugu lehen maketa hau.

**Zer kontaktzen duzue zuen kantuetan?**

Sei abestietan barrena taldeko partaideek kezkatzen gaituzten gauzak modu positibo batean kontaktzen saiatu garen.

**Nola egin duzue kantuen hautaketa?**

Abestien sortzaileak taldeko partaide guztiak izan gara, letra kontua berriz Txemari eta Antonioren eskupean geratu da. Hori bai azpimarra daiteke, badagoela musikan oinarritutako abesti bakarra eta beharbada Soul Street taldeak gehien maite duena: "azken ametsa", maketari izena ematen diona, alegia.

LARRAIZ GARMENDIA (TFNOA: 391267)